



DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ETA GIZARTERATZEKO LEGE- PROPOSAMENARI EGINDAKO EKARPENAK.

Agerraldia Eusko Legebiltzarreko Enplegu, Gizarte Politika eta Gazteria batzordearen aurrean.

2019ko azaroaren 18an

Sarrera.

Hasteko, agerraldi horretan parte hartzeko jaso dugun gonbidapena eskertu nahi dizuegu, eta esker on hori legebiltzarreko batzorde osoari zabaldu.

Hau ez da Caritas Euskadik Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko Legeriari buruz bere iritzia ematen eta ekarpenak helarazten dituen lehenbiziko aldia.

Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren bidez (haren formulazio desberdinetan) Caritas Euskadik ekarpen ugari egin dizkie hainbat lege-proposameni eta gai horri buruzko haien arau-garapenei. Halaber, ekarpenak eta proposamenak egin dizkiogu Eusko Jaurlaritzak bultzatutako gizarteratzeko hainbat plani ere.

Aukera izan dugu gaiari buruzko gure iritzia zuzenean helarazteko, Legebiltzarrean ordezkartza duen alderdi politiko bakoitzarekin izandako elkarrizketen bidez. Bi aldiz bildu gara Enplegu eta Gizarte politiketako Sailaren ardura duten hainbat ordezkari politikorekin, eta gure kezka helarazi diegu bi txostenen bidez. Txosten horietan jaso dira Diru Sarrerak Bermatzeko Errentarekin (DSBE) lotutako hainbat intzidentzia, Caritas Euskadik artatutako pertsonengan eragina izan dutenak. 2018ko martxoan beste agerraldi bat egin genuen Legebiltzarrean, batzorde horren aurrean.

Elkarrizketarako eta ekarpenak egiteko aukera, bide eta solaskide ugari izan ditugu, eta horrek indartu egin du guk elkarrizketa zibilaren alde egindako apustua, parte hartzeko estrategia gisa. Hala eta guztiz ere, ez daude ebidentzia asko elkarrizketa-estrategia horrek benetako eragina izan duela erakusteko. Sentsazioa dugu gure ekarpenek ez dutela eragin nabarmenik izan, eta eman ohi dugun ikuspegiak azkenean ez duela laguntzen adostasunak eraikitzen.

Caritas Euskadik Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Gizarteratzeko politiken inguruan egindako gogoetak, proposamenak eta jarrera-indartzeak honetan oinarritzen dira: Caritasek laguntzen dituen pertsona askoren errealitatean pobrezia

ekonomikoa eta bazterketa gizarte-egoera larriak –eta elkarri lotuak– diren arren, egiaztatu dugu egoera horien artean badirela kontuan izan beharreko zenbait alde edo desberdintasun ere; batez ere diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko estrategia hobetzea helburu duen politika zehatzekin aurre egin behar diegunean.

Pobrezia ekonomikoak pertsona edo biztanleria jakin batek oinarritzko bizitzari eusteko dituen diru-sarreraren egoera neurtzen du. Neurketa hori egiteko diru-sarreraren atalase-maila bat ezartzen da, eta maila horren azpitik dagoena definitzen da pobrezia ekonomikoa.

Gizarte-bazterketa, berriz, dimentsio anitzeko kontzeptua da: konplexuagoa izateaz gain, pertsonen egoera ekonomikoari eragiten dio, baina ez du dimentsio horretan bakarrik kalte egiten. Izan ere, pertsona horiek hainbat esparrutan izan ditzakete zailtasun-egoerak, hala nola parte-hartze politikoan, hezkuntzan, osasunean eta familia- edo gizarte-harremanetan; azken horien eraginez, gainera, bizi diren gizartetik urrundu (baztertu) egiten dira.

Hori dela eta, gizarte-politika publikoek diru-sarrerak bermatzeko tresnak garatu eta mantendu behar dituzte, bizitzari eusteko eta pobrezia ekonomikorik ez egoteko. Aldi berean, gizarteratzea bermatzeko zeharkako tresnak sustatu behar dituzte, pertsona horiek beren gizarteko ondasun sozialaren parte-hartzaile ere izan daitezen.

Diru Sarrerak Bermatzeko Sistemari buruz.

Ebidentzia eraginkor eta neurgarri hau da gure abiapuntua: euskal gizarteak diru-sarrerak bermatzeko sistema bat izateak gizarte-oinarriak ezartzen ditu, zailtasun handienak dituzten gure inguruko pertsona eta familia guztiak gizarteratzeko.

Beraz, tresna politiko eztabaidea da; are gehiago, pobreziaaren aurkako borrokan onartu zaion eraginkortasuna eta gizarte-kohesioa sustatzeko duen ahalmena kontuan hartuta.

Horregatik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Lege-proposamen horri dagokionez, Caritas Euskadik honako ekarpen hauek egin nahi ditu:

Egia bada ere Lege-proposamenaren helburuetan hauek jasotzen direla:

- egungo erronka sozioekonomikoei emandako erantzunak hobetzea,
- inklusioaren zeharkako ikuspegi batetik garatzea sistema hori,
- herritarrengandik hurbilago dagoen sistema bat ezartzea, eta
- eskainitako prestazioen estaldura hobetzea,

Lege-proposamenaren garapenean, proposatutako aldaketa asko sistemaren kudeaketarekin lotuta daude, hau da, kudeaketaren ardura duen erakundeak (Lanbide) tresna horren (DSBE) garapen egokirako dituen zailtasunekin daude lotuta, eta asko

urruntzen dira bazterketa- eta zaugarritasun-arrisku handiengan dauden pertsonen errealitatetik.

Kolektibo zaugarrienen babesgabetasunak kezkatzen gaitu bereziki, eta egoera hauetatik sortzen da babesgabetasun hori:

1) **Etxebizitza batean bizi diren kide guztiak bizikidetza-unitate bakartzat hartzea, eta DSBE bakarra ematea bizikidetza-unitate bakoitzeko**, bizikidetza hori zein harreman-motari zor zaion eta zein zirkunstantzia sozialek eragin duten kontuan hartu gabe.

Neurri hori asko urruntzen da gure inguruan gaur egun dagoen egoeratik eta etxebizitzak duen kostutik. Euskal Herrian etxebizitza da bazterketa-faktore nagusietako bat, jada baztertuta dagoen biztanleriarentzat batez ere: esklusio-faktore nagusia da bazterketa sozialeko egoeran dagoen biztanleriaren %58rentzat eta, oro har, biztanleriaren %24rentzat.¹

Alde horretatik, etxebizitza partekatzea oso zabaldua dago herritar zaugarrienen artean. Gainera, Administrazio Publikoak berak estrategia hori sustatzen du plan batzuetan; Etxebizitzaren Plan Zuzentzailean, esaterako. Izan ere, plan horretan *co-housing*ak eta partekatutako pisuak ezartzen ditu etxebizitza eskuratzeko formula berritzaile gisa.

2) **Prestazioaren eta hari lotutako osagarrien oinarritzko zenbatekoa zehazteko formula bat ezartzea, adierazle estandarrei (LGS eta IPREM) erreferentziarik egin gabe edo haiekiko loturarik gabe**, eta eguneratzeko irizpide objektiborik ezarri gabe.

Diru Sarrerak Bermatzeko Sistemak ezaugarri hauek izatearen aldeko apustua egiten dugu: sistema horrek pobrezia-atalasea gainditzea izatea erreferentziatzat (xede horrekin eraikitzen baita); eta gizarte-politika gardenagoak diseinatzea, zenbatekoen formulei, adierazleei eta eguneratzeei dagokienez.

3) **Pobrezia kriminalizatzen duen ikuspegiak eta horren inguruko iruzurraren gehiegizko dimentsioak** kezkatzen gaitu; izan ere, hori dela-eta, DSBEa jasotzen duten pertsonen buruz gizartearen gehiengoari helarazten zaion estereotipoa da pertsona horiek ez direla gai etxeko ekonomia kudeatzeko (gaizki gastatzen dute) eta iruzur egiten dutela (benetan behar izan gabe eskuratzen dituzte diru-sarrerak).

Ikuspuntu horiek zabaltzeak kalte larria egiten dio sistema publiko guztiari, arrakala bat sortzen du eta, oro har, kalte egiten dio gizarte osoari, urrundu egiten baitu pertsona guztiak babesten gaituzten beharrezko politika publikoetatik (diru-sarrerak bermatzekoa eta gizarteratzekoa, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza eta osasuna...).

[Gizarteratze-politikaren ikuspegiari eta garapenari buruz.](#)

¹ Informe sobre exclusión y desarrollo social. Euskadi. (FOESSA 2018)

Gure ustez, proposamen horretan hobekuntzak egin behar dira, dimentsio anitzeko eta zeharkako ikuspegi batetik erantzun ahal izateko “laneratzeko edo gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua jasotzeko eskubideari”.

1) Lehenik eta behin, **gizarteratzeko laguntza bideratzerakoan, lana/gizartea dikotomia gainditzea** proposatzen dugu. Ikuspegi multidimentsional eta konplexu batetik, hainbat faktore konbinatzen dira gizarteratze hori eraikitzeko: lanekoak, parte-hartzaileak, harremanetakoak, materialak, prestakuntzakoak, etab. Eta horiek guztiak artikulatu behar dira, ikuspuntu integral, konplexu eta pertsonalizatu batetik.

2) **Enplegua hartu izan da gizarteratzea lortzeko eta pobrezari aurre egiteko estrategia eraginkor eta unibertsalaren ardaztat**, baina beharrezkoa iruditzen zaigu **idea horren berrikuspen objektibo bat egitea**.

Honako hauek bultzatu gaituzte proposamen hori egitera: zaugarritasun- eta bazterketa-prozesuen izaera multidimentsionala eta konplexua dela onartzeko dagoen adostasuna; fenomeno horri buruzko ezagutzan egin diren aurrerapenak eta gaur egun gure inguruan fenomeno hori nola agerten den; eta gaur egun eginkizun sozialean enpleguak indarra galdu izana.

3) **Legean aitortutako bi eskubideen arteko loturari dagokionez**: uste dugu beharrezkoa dela **gizarteratzeko laguntza-eskubideari lotutako proposamenak berriro formulatzea, berezko izaerarekin eta zeharkakotasunez artikulatuz, eta eskubideetan oinarritutako prestazioen sistematik bereizita**. Uste dugu egungo proposamenak baliabide ekonomikoak izateko eskubidearen mende jartzen duela, oraindik ere, inklusiorako laguntzak jasotzeko eskubidea. Gizarteratzeko laguntza horiek (batez ere laneratzearekin lotutakoak) soil-soilik zehazten dira eskubideetan oinarritutako prestazioak jasotzen dituzten eta lan egiteko adinean dauden pertsonentzat. Nola dauden formulatuta ikusita, gehiago dira prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten herritarren kontraprestazioa eta obligazioa, zaugarritasun- eta bazterketa-egoeran dauden herritarrei laguntzeko eskubidea baino, prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubideen subjektu izan ala ez.

ONDORIOA:

Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako borroka hau eskatzen du: **adostasun politiko zabal eta egonkorretan oinarrituta gizarte-itun bat eraikitzea, Hirugarren Sektoreko erakundeekin elkarrizketan, eta kaltea pairatzen duten pertsonen parte-hartzea kontuan hartuta**. Adostasun hori ezinbetekoa da, babestera, bizitzari eustera eta gizarteratzera bideratutako politika publikoen oinarriak ezartzeko.